

Igarlearekin solasean.mp3

Esataria: Egun on guztioi. Gaurko saioan, Jokin Altzibar igarlea dugu gurekin, kartak eskuan dituela, zuen etorkizunean zer gertatuko ote den iragartzeko prest. Deitu, galdetu, eta kartek zer dioten azalduko dizue Jokinek!

Entzulea 1: Bai, egun on. Aspaldi honetan oso urduri nabil unibertsitateko ikasketak aukeratu behar ditudalako, eta jakin nahi nuke ea, hainbeste buelta eman ondoren, asmatuko ote dudan aukeratutakoekin. Zer uste duzu, Jokin?

Igarlea: Tira, ba, kartek baietz diote, baina agian ez duzu lehenengoan asmatuko. Badirudi hasieran aukeratuko dituzunak hasi eta berehala utziko dituzula, baina, lasai, bigarren aukera oso egokia izango da zuretzat, eta, aurrerago, horiekin lotutako lanean arituko zara; beraz, lasai.

Entzulea 2: Kaixo! Nik maitasunaz galdetu nahi dizut, azken boladan ez baitut batere ligatu, eta larritzen hasi naiz. Zer uste duzu, Jokin, ligatuko ote dut laster?

Entzulea 2: Ba, sentitzen dut, baina kartek diote oraindik pixka bat gehiago itxaron beharko duzula... bi hilabete barru zerbait ikusten dut, harreman berezi bat izan daitekeena, baina ordura arte, ezer ez. Dena den, bitarte horretan, ibili lasai eta saiatu ongi pasatzen.

Entzulea 3: Hepa. Nik bizitza honetan gauza pila bat egin nahiko nituzke, baina urte asko beharko ditut horretarako, eta, gauzak antolatzeke, jakin nahiko nuke ea ehun urtera arte biziko ote naizen. Zer diote kartek, Jokin?

Igarlea: Uf! Zaila da hain zehatza izatea, sentitzen dut. Kartek bizitza luzea eta zoriontsua izango duzula diote, baina ezin dizut esan noiz arte biziko zaren.

Entzulea 4: Kaixo. Nik oso galdera zabala egin nahiko nizuke, Jokin. Beteko al dira nire ametsak?

Igarlea: Arrazoi duzu, oso galdera orokorra da hori. Kartek une zoriontsu asko izango dituzula diote, baina amets guztiak beteko ote dituzun jakitea ezinezkoa da.

Esataria: Tira, erantzun ditugu zuen galderetako batzuk, baina gaurkoz ez daukagu tarte gehiagorik. Hala ere, gogoratu astelehenero izango dugula Jokin gurekin. Mila esker, Jokin. Datorren astera arte.

Igarlea: Bai, aste ona izan!